



# PLAZARA

Euskara, erdigunera  
[Faîtes] une place à l'euskara

**Plazara** diziplinarteko kolektibo sortzaile, ibiltari eta inspiratzailea da. Euskara ikusgarriagoa, entzunagoa eta erabiliagoa izatea bilatzen dugu, Euskal Herriko plazetan.



**Komunikazioa**



**Formakuntza**



**Aholkularitza**



**Antolaketa**



[www.plazara.eus](http://www.plazara.eus)

# Gure ametsak



**EUSKALDUNENTZAT**

**Euskara  
hurbilago**



**ERDALDUNENTZAT**

**Euskara  
presenteago**



**EGITURENTZAT**

**Euskara  
praktikoago**

## Zer egiten dugu?

\* Euskaraz **funtzionatu** nahi duten egiturak aholkatzen eta laguntzen ditugu

\* Euskaratik urrun diren publikoei **aitzin-jasta** bat eskaintzen diegu

\* Haien bestetan euskarari toki zentralagoa eman nahi diotenei **tresnak** ematen dizkiegu

\* Beren haurarentzat euskararen hautua egin duten gurasoak **kokatzen** laguntzen ditugu

\* Komunikazio euskarrietan hizkuntzak kohabitarazteko zailtasunak dituztenei **trukoak** ematen dizkiegu...

Bakoitzaren beharretatik eta **korapiloetatik abiatuta, aterabide konkretuak etan berritzaileak** bilatuko ditugu euskara eguneroko bizian kokatzeko.

Hizkuntzarekin dugun harremana hobetuz bezala, beste eremutan ere **eragitea** bilatzen ditugu: talde kohesioa, lanaren kalitatea, jende arteko hurbiltasuna, aniztasuna, inklusioa, berrikuntza...

## HAN & HEMEN

Garabide elkartearekin lankidetzan, mundu mailan haien **hizkuntza, kultura** eta eskubideen alde **borrokatzen** diren komunitateekin lan egiten dugu.

Asko dugulako ikasteko **bata bestearengandik**, hainbat aktibistekin harremanetan gira: Amazighak, Aimarak, Baribak, Bretoiak, Bubiak, Katalanak, Guaraniak, Kurduak, Maputxeak, Quebectarrak, Kitxuak...

# Gure lanak

## Zerbitzuak eskaini

#PLAZARABIDELAGUN

Euskal Herriko eragileak **laguntzen** ditugu, euskara **haien funtzionamenduan** hobeki txerta dezaten. Elkarreak, saltegiak, instituzio publikoak, gertakariak, enpresak, kolektiboak...

1.

- Esku hartze **pertsonalizatuak**.
- Ekintza **sorta zabala** (itzulpenak, formakuntza, komunikazioa...)
- Diziplina desberdinen **gurutzaketa** (soziolinguistika, ikerketa, pedagogia...).

## Proiektu propioak asmatu

#PLAZARASORTZAILE

Egitasmo **berritzaileak** sortzen ditugu, euskara eta herritarren arteko **loturak sendotzeko**. Hizkuntza mediazio tailerrak, sentsibilizazio tresnak, zine eztabaidak, familia egonaldiak, gertakariak...

2.

- Euskara **hobekuntza sozialarekin** uztartzea.
- Beste eragileekin **partaidetza estuan** aritzea.
- Gure **baloreak erdigunean** ematea.

## Kolaborazio berriak garatu

#PLAZARALANKIDETZAN

Euskal Herriko eta mundu mailako herri mugimenduekin kooperatzen dugu, elkar inspiratzeko eta elkarrekin amets konkretu batzuk gauzatzeko.

3.

- **Elkarrengandik ikasteko** trukaketa programak eraiki.
- Hizkuntzatik abiatuz, **komunitatea indartzen** duten beste gaiak landu: kultura, nortasuna, lurra, mundu ikuskera...
- Hizkuntza aniztasunaren bidetik, mundu **libreago, justuago, parekideago, jasangarriago eta anitzago** bat eraiki.

## ZUK, ZERGATIK EZ?

Helburu handiak dituen talde txikia gira; zure laguntzarekin, gure ametsak gauzatuko ditugu.

### 1. Sustengatu

Materiala erosiz edo dohaintza puntuala eginez, sustengatzaile bilakatzen zira.

### 2. Kide

Elkarteko kide eginez, Plazalagun bilakatzen zira.

### 3. Integratu

Kolektiboa integratuz, Plazakide bilakatzen zira.

ZURE BABES EKONOMIKO ETA MORALAK EZINBESTEKOAK ZAIZKIGU.

## Zenbakitan



<b>2022</b> PROIEKTUAREN ABIATZEA	<b>2</b> ZANGO	<b>4</b> LAN ARDATZ	<b>8</b> PERTSONAKO LANTALDEA
<b>12</b> PLAZAKIDE (KOLABORATZAILE)	<b>200</b> PLAZALAGUN (BAZKIDE)	<b>21</b> HIZKUNTZA KOMUNITATEREKIN HARREMANA	
<b>145</b> ERAGILEREKIN LANKIDETZA		<b>6</b> FEDERAZIOREN KIDE	




4, rue des Lisses 64100 Baiona

+33 7 75 66 58 04  
euskara@plazara.eus  
www.plazara.eus



# PLAZARA

Euskara, erdigunera  
[Faîtes] une place à l'euskara



Erasmus+



Interreg  
POCTEFA



Cofinanciado por  
la UNION EUROPEA  
Cofinancé par  
l'UNION EUROPÉENNE